

EUSKAL HERRIKO BERTAKO TOMATEAREN LEHIAKETA.
(I.EDIZIOA)
Aretxabaleta, irailak 10.

Aretxabaletan irailaren 10ean lehen aldiz Euskal Herriko tomate lehiaketa antolatuko da.

OINARRIAK:

1.- Euskal Herriko bertako tomateak izan behar da.

2.- Euskal Herrian erroldatuta dagoen edonork parte hartu dezake.

3.- **Lehiakide bakoitzak aurkeztu duen barietate bakoitzeko hiru ale aurkeztu behar ditu.** (aurkeztu diren aleak antolatzaileen esku geldituko dira)

4.- Lehiaketan parte hartzeko aurrez izena eman behar da.

Izena emateko azken eguna irailak 6 eguerdiko 12:00etan.

Izena posta elektronikoz eman behar da, honako helbidean:

- kultura@aretxabaleta.eus
- Asuntoa: 2023ko Euskal Herriko bertako tomate lehiaketa.
- Nortasun agiriaren kopiarekin batera ondorengo datuak bidali behar dira:
 - Izen-abizenak:
 - Telefonoa:
 - Herria:
 - Aurkeztu den barietatearen izena:
 - Noiztik ugaltzen duen barietatea:
 - Nondik iritsi zaion edota norengandik:

5.-Tomateak, irailak 10ean, goizeko 9:30etatik 10:30ak bitartera ekarri behar dira Aretxabaletako Udalak Durana kalean horretarako jarrita egongo den karpara.

6.- Epaimahaia adituek osatuko dute.

7.- Sariak honakoak izango dira:

-1. saria: 500 euro eta garaikurra.

-2. saria: 300 euro.

-3. saria: 150 euro.

-Aipamen berezia, Aretxabaleta tomate onenari. Saria: 150 euro.

8.- Epaimahaiaren erabakia, irailak 10ean, eguerdiko 13:30etan lehiaketa antolatu den karpan emango da.